# BESTELAKO XEDAPENAK

## ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

## 719

*EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 19koa, Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearena, «Donostialdeko metroaren Irun-Hondarribia tarteari buruzko informazio-azterlana» jendaurrean jartzeko dena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana (otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartutakoa) Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionean aldatzeko planetan aurreikusi da Donostia-Hendaia (topoa) eta Bilbao-Donostia trenbideak Donostialdean eta inguruko beste herri batzuetan eraldatzea, mugikortasunean izandako hazkundea hasieran aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa izan baita, eta hortaz, komeni da hasieran proposatutakoa baino askoz ere konponbide anbiziosoagoak bilatzea.

Horrela bada, diseinu honek trenbideko garraioaren bestelako kontzeptu bat ekarri du, Zarautz eta Hendaia artean metro gisako zerbitzu bat sortuz, eta horretarako, besteak beste, Donostia hirian, Lugarizko egungo geltokiaren eta Morlansen egingo denaren artean (Amarako eta Anoetako egungo geltokien artean) trazadura handitu egingo da, eta esku artean dugun kasu honetan, Irunen eta Hondarribian zerbitzua jende gehiagori eta hobeto eskaintzeko.

Eta horretarako, «Donostialdeko metroaren Irun-Hondarribia tarteari buruzko informazio-azterlana» idatzi da.

Informazio-azterlan honen xede den trazaduran bi adar berezi daitezke: adar nagusi bat, 5.785 metrokoa, Irun eta Hondarribia artekoa; eta, bigarren adar bat, 667 metrokoa, adar nagusitik abiatzen dena, eta Hendaiarantz doan egungo linearekin lotzen dena.

Tarte horretan geltoki hauek daude:

– Belaskoeneko geltokia, geltoki intermodal berrian txertatua.
– Colon: leize gisako geltokia.
– San Migel-Anaka: leize gisako geltokia.
– Aireportua: zubi gainean.
– Hondarribia: leize gisako geltokia.

Dokumentuari onespen teknikoa eta behin-behingoa eman dio Garraio Azpiegiturako zuzendariak, Zuzendaritzako teknikariek proiektua ikuskatu eta haren aldeko txostena eman baitute; teknikariek egiaztatu dutenez, proiektua teknikoki zuzena da eta zorrotz betetzen ditu trenbideen alorreko araudi berezia eta aplikatu beharreko gainerako legerian ezarritakoa.

Organo horrek eskumena dauka Jaurlaritzaren Kontseiluarentzat gordeta ez dauden trenbide-sareko proiektuak idatzi eta onartzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 15.1.e) artikulua betez (dekretu hori azaroaren 30eko 328/2010 Dekretuaren bidez aldatu zen).

Trenbide Sektoreari buruzko Erregelamenduaren 10.5 artikuluak ezartzen du ezen proiektua, behin betiko onartu baino lehen, hogeita hamar egun balioduneko epean jendaurrean izan beharko

dela, nahi duenak alegazioak aurkez ditzan, trazaduraren ikusmoldeaz, baldin eta ikusmolde horrek interes orokorreko alderdiei eragiten badie.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

«Donostialdeko metroaren Irun-Hondarribia tarteari buruzko informazio-azterlana» eta haren ingurumen-inpaktuaren gaineko azterlana jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, ebazpena azkenez argitaratu eta biharamunetik hasita, eta udal, elkarte eta partikularrek jarduketa horrek interes orokorrari eragiten dion heinean trazaduraren ikusmoldeaz eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaz alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Epe horretan, informazio-azterlana jendaurrean izango da, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean), Irun eta Hondarribiko udaletxeetan eta www.euskadi.net webgunean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren atalean.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 19a.

Garraio eta Herri Lanetako sailburuordea,
ERNESTO JOSÉ GASCO GONZALO.